

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3899

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen 2025erako deialdiaren oinarriak.

Eusko Jaurlaritzak Europako estrategiaren testuinguruan zehaztu du Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025.

Eraldaketa digitaleko testuinguru batean gaude gizartearen esparru guztietan, eta horrek eragina du nola ekonomian hala gizartean. Jasangarritasun-helburuei jarraikiz, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren erregelamendu-proposamen baten bidez, Europa Digitala Programa 2021-2027 ezarri du. Programaren helburu orokorra EBren, estatu kideen eta industriaren inbertsioak sustatzea da, Europako ekonomiaren, industriaren eta gizartearen eraldaketa digitala bultzatzeko eta, horrela, lehiakortasuna hobetzeko, eten digitala murrizte eta EBren autonomia estrategikoa indartze aldera.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Plan berriak (ZTBP Euskadi 2030) islatzen duen bezala, gure autonomia-erkidegoak hiru esparrutako eraldaketa bati egin behar dio aurre: teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozial-sanitarioa. Iraultza teknologiko-digitalak ekonomiaren sektore guztiei eragingo die. Sektore horiek trantsizio-prozesu batean daude, antolamendu-metodo tradizionalen eta digitalizazioan oinarritutako antolaketaren artean. Horretarako, prozesuen automatizazioan eta hobekuntzan aurrera egiten ari dira, baita soluzio malguak eta robotizazio, fabrikazio gehigarri edo konektibitateko teknologiak txertatzen ere makinaren eta ekipamenduen artean, horixe baita adimen artifizialeko eta «Big Data» teknologiak aplikatzeko funtsa.

Digitalizazioa, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialdeen garapen ekonomiakoaren adierazleak dira, baita produktibitateko, lehiakortasunerako eta hazkunde jasangarrirako faktore erabakigarriak ere. EAE, azken hamarkadotan, ahalegin publiko eta pribatu bateratua egiten ari da espezializazio adimendunaren eta ezagutza-gizartearen sustapenean funtsatuta, EAE Europako berrikuntza-gune bihurtzea dela lehentasunezko helburua.

Europar Batasunaren ingurunean, EAE egoera aurreratuan dago bere ekonomia eta gizarte digitalizatzeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Digitalen Europako Indizearen arabera (DESI 2023, Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuak argitaratua). Ekonomia eta Gizarte Digitalen Europako Indizea (DESI) izenekoan egindako konparazio bati jarraiki, EAE zazpigarren dago garapen digitalean Europako herrialdeen batezbestekoarekin alderatuta. Indize horrek bost alderdi neurtzen ditu: konektagarritasuna; giza kapitala; Interneteko zerbitzuen erabilera; teknologia digitalak enpresetan txertatzea, eta zerbitzu publiko digitalak. EAE bost alderdi horietatik lautan dago lehen zortzi herrialdeen artean; Interneteko zerbitzuen erabilera da salbuespen bakarra.

Beste sektore batzuetan eraldaketa digitalerako bidea onartuta eta hasita badago ere, elikagaien sektorea moteldu egiten da bere kasuistika espezifiko dela medio. Elikagaiak heterogeneoak dira eta iraungi egiten dira; horregatik, elikagaiak manipulatzeko eta eraldatzeko ohi baino konplexuagoa da.

Kontuan izan behar da, gainera, elikagaien eta zuraren balio-kateko enpresen ezaugarri komun bat tamaina dela, neurri handi batean enpresa txiki eta ertainek eta mikroenpresek osatzen baitute. Bestalde, badakigu sektore hori tradizionala dela, eta, orokorrean, industrializazio-maila handiagoa duten beste sektore batzuetan baino motelago sartzen direla teknologia eta prozesu berriak.

Elikaduraren balio-kateari Euskadiko BPGaren % 10,6 dagokio, eta 31.000 bat enpresa izanik, guztira 95.000 enplegu baino gehiago sortzen ditu. Zuraren balio-katea, berriz, BPGaren % 1,54 da, eta 18.000 lanpostu sortzen ditu. Digitalizazioak eta teknologia digitalen erabilera adimendunak zeregin erabakigarria dute enpresen berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkundea arrakastatsua izan daitezen, eta horiek merkatuan kokapen sendoagoa izateko aukerak eskaintzen dituzte. Digitalizazioak berrikuntza ugari eskaini ditzake prozesuetan, eta, beraz, entitateei aukera ematen die lehiakideengandik bereizteko; esate baterako, fabrikazio-enpresei eta enpresa txikizkarietara aukera ematen die ekoizpenaren efizientzia hobetzeko, fabrikazio-prozesuak eta hornidura-katea automatiza baititzakete.

Agindu honen xedea da laguntzen deialdia egitea gastu eta inbertsioak egiteko digitalizazio-proiektuetan eta 4.0 teknologia txertatzeko proiektuetan, EAeko elikagaien eta zuraren balio-katearen lehiakortasuna hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko.

Eta aurreko (2023ko eta 2024ko) deialdien ibilbideari jarraikiz, deialdi honetan egokitzen jo da laguntza ematea behi-, hausnarkari txiki-, behor- eta kamelido-multzoen kudeaketan teknologia berriak sar daitezen, Euskadiko abeltzaintza-ustategietarako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen otsailaren 25eko 50/2025 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoaren arabera. Desagertzen ari den figura tradizional baten aurrean ogibidea mantentzeaz gain, hainbat jatorritako baliabide naturalen larratzea optimizatu ahal izateko (haraneko belardiak udaberrian eta udazkenean; mendiko herri-belardiak udan; uztondoak udan zereala bildu ondoren; erabilera publikoko mendia udazkenean eta neguan, basoko larratzearen bidez, etab.), urtean zehar hainbat unetan erabilera egokituz, ingurumena hobetzeko bokazioarekin oso lotuta.

Larratze-lan horrek natura-ingurunea ahalik eta ondoen kudeatzen laguntzen du, eta ingurumen- eta gizarte-onurak dakartza. Ingurumenarentzat dakartzan onurak, besteak beste: suteen aurkako larratzea, lugorriak garatzea, goi-tentsioko lineak eta suebakiak zaintzea, natura-igarobi-deak mantentzea, ekosistema-zerbitzuak sustatzea, mendian sastrakak mekanikoki kentzea eta gehiegizko larratzea.

Agindu honen bidez iragarritako laguntzak jasota daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren 2024, 2025 eta 2026. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan estrategiko hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez onartu zen (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2024, 2025 eta 2026. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena). Indarrean den plan horren bertsioa Eusko Jaurlaritzaren web-orrian dago argitaratuta, (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/sail-plana/dirulaguntzen-plan-estrategikoa-ekonomiaren-garapen-jasangarritasun-eta-ingurumen-sailarena-2024-2025-eta-2026-urteetarako/>), sailari eskainitako gunean eta «Planak eta proiektuak» atalean. Hurrengo DPEa onartu artean, garai bateko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren DPEaren baitan dago jasota programa hau, plana eguneratzeko prozesuan.

Laguntzak, lehen bi lerroetan, de minimis laguntzen esparruaren arabera emango dira, eta honako hauek aplikatu beharko dira: Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta aplikagarriak izan daitezkeen Estatuko nahiz Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenak.

Hirugarren lerrorako, Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa aplikatuko da. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaratzeko dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Erregelamendu horietan jasotzen diren laguntzak merkatu erkidearekin bateragarriak direla ulertzen da, eta, beraz, ez dute Europar Batasunaren baimenik behar, baldin eta estatu kideek erregelamendu horietan ezarritakoa errespetatu eta betetzen badute laguntzak arautu eta esleitzean. Erregelamendu horietan xedatutakoaren barruan sartzen dira agindu honetako laguntzak.

Xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz ebatziko da laguntza-emakida: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena, eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa (EAeko Administrazio Publikoaren dirulaguntzak arautzen dira bertan).

Aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak baimendutako kredituen arabera, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarrita dagoenari jarraikiz, laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du.

Eta bat etorritz ekainaren 30eko 7/1981 Gobernu Legearekin (lege horren 26.4 artikulua araberak, Jaurilaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute), honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien eta zuraren balio-katea digitalizatzeko laguntzen 2025erako deialdiaren oinarriak, agindu honen eranskinean jasota daudenak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertze helegitea jarri ahal izango zaio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 9a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien eta zuraren balio-katean digitalizazioa txertatzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia egitea, lehiakortasuna hobetze aldera.

2.– Agindu honetan bildutako laguntzek hiru helburu dituzte: batetik, enpresei laguntzea digitalizazio-prozesua hasten, sistema digitalak txerta ditzaten; bestetik, digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei laguntzea, 4.0 teknologia txerta dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien eta zuraren balio-katean eragina duten digitalizazio-proiektu estrategikoak sustatuz, eta, azkenik, digitalizazio-teknologia berriak zabaltzea aziendaren kudeaketan.

2. oinarria.– Dirulaguntzen izaera.

1.– Dirulaguntza-programa honetan, publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete behar dira. Programa honen esparruan emandako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

2.– Laguntzak norgehiagoka bidez esleituko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– 3. oinarriko A) eta B) lerroei dagozkien laguntzak esparru honen arabera banatuko dira, betiere Espainiako nahiz Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapen aplikagarriak salbu utzita:

– Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

– Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

– Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

4.– Hirugarren lerroko, 3. oinarriaren C) atalean xedatua, Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduari buruzko Tratatuaren 14.14.a artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan barne-merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza-kategoria deklaratu dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

3. oinarria.– Laguntza-lerroak eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Agindu honen 1. oinarriko xedea lortzeko, laguntza hauek emango dira:

A) Enpresei digitalizatzen hasten laguntzeko laguntzak. Aurrerapauso bat egin eta sistema digitalak txertatu nahi dituzten enpresak dira helburua. Zerbitzuak finantzatzeko aukera izango dute, hala nola digitalizazio integraleko planak ezartzeko edo tresna digitalak txertatzeko enpresaren jarduera-eremu guztietan ezartzeko –esate baterako, elikagaien nahiz zuraren balio-kateari lotutako produktuen kudeaketan, ekoizpenean edo merkaturatzean–. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, jarduera hauekin lotutako jarduketak:

– Diagnostikoak garatzea soluzio digitalak ezartzeko.

– Enpresan kudeaketa aurreratuko sistemak ezartzea, hala nola ERP («Enterprise Resource Planning» edo enpresa-baliabideak planifikatzeko sistemak), «Business Intelligence» deritzona (negozio-adimena), etengabe hobetzeko zerbitzua, mantentze-lan prebentiboa, hornidura-katearen kudeaketa logistikoa, etab.

– Produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa; horrelako aplikazioak ezartzea: CAM (ordenagailuz lagundutako fabrikazioa), EAE (ordenagailuz lagundutako ingeniari-tza), PDM (produktuaren datuen kudeaketa), DMF (manufaktura digitala) eta antzekoak.

– Merkataritza elektronikoa ezartzea: erosketak elektronikokoak, salmenta elektronikokoak, B2B («Business to Business») proiektuak, B2C («Business-to-Consumer») proiektuak.

– Telelana txertatzeko edo hobetzeko sistemak sustatzea, duten izaeragatik EAEko elikagaien eta zuraren balio-katearen sektoreak berezkoa duen aldiberekotasunik gabe –ez fisikorik ez denborazkorik– egiteko aukera ematen duten zereginak gauzatzean.

– Eskuratutako tresnak abian jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak programatzea eta eskaintzea.

B) Digitalizazio-fase aurreratuan dauden eta elikagaien eta zuraren balio-kateko produktuak egiteko 4.0 teknologia txertatu nahi duten enpresentzako laguntzak. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, jarduera hauekin lotutako jarduketak:

– Enpresen digitalizazio-egoeraren diagnostikoa, askotariko 4.0 teknologien ezarpen-maila baloratzeko.

– Mota hauetako azpiegiturak garatzea:

- Plataforma txertatuak, biltegitratzeko, kontrolerako, alertak sortzeko, negozio-analitikako eta txostenak sortzeko oinarrizko funtzionalitateekin.

- Datuak, kudeaketa-sistema korporatiboak eta enpresarako edo balio-katerako garrantzitsuak diren kanpo-datuak biltegitratzeko plataformak digitaletan osatzea.

- Makina eta sistema industrial guztiak plataformak digitaletan txertatzen amaitzea.

- Prozesu industrial guztietan zibersegurtasun-soluzio oso bat ezartzea: segurtasun-soluzioak gaitzea, gorabeherak eta arrotzak antzemateko eta horiei denbora errealean erantzuteko.

– Digitalizazioa ekoizpen-prozesuan eta produktuen kontrolean:

- Ikuskarpen-sistemak eta sentsorikak aurreratua eratzea.

- Soluzio automatizatuak eta sistema robotikoak planifikatzea eta diseinatzea.

- Prozesuko datu garrantzitsuak lortu eta txertatzea historikoen ekoizpena eta sorkuntza kudeatzeko plataforman.

- Prozesuak optimizatzea, datuak tratatzeko teknikak aplikatuz («machine learning» deritzona etab.).

- Prozesuen eta produktuen datuak digitalizatzea eta plataforman edo hodeian ostatatzea.

- Erabiltzailearen interfazea (HMI «Human Machine Interface») hobetzeko plan bat egitea eta abian jartzea, soluzio digitalen bidez (adib.: sentsoreak, tableta, etab.), langileen gaitasunak, prestakuntza (adib.: langile berriak), osasuna eta laneko segurtasuna hobetzeko, besteak beste.

– Elikagaien balio-katearen, zuraren balio-katearen eta horien industriaren negozio-datuak analizatzea:

- Datuak analizatzeko ereduak garatzea «machine learning»eko tekniken eta antzekoen bidez.
- Ekoizpen-prozesua optimizatzeko eta produktuaren kalitatea, segurtasuna eta osotasuna ziurtatzeko aurreikuspen- eta agindu-ereduak garatzea: bai enpresaren barruko prozesuaren mailan (adib.: prozesuaren efizientzia hobetzea), bai balio-katearen mailan (prozesuen artean).
- Enpresatik edo balio-kateatik kanpoko datuak txertatzea, merkatuari, bezeroari, sare sozialei, klimari, inguruneari eta abarri buruzko datuak barne.

– Katearen ekosistema / konektagarritasuna / «Business Intelligence» delakoa ezartzea:

- Ekosistemako eragile guztiekin datuak partekatzeko eta ondoriozko IPR (jabetza intelektuala eta industrial) kudeatzeko plana definitzea.
- Merkatuaren eta kontsumitzaileen eskariaren zaintza eta prospektiba, denbora errealean.
- Hornitzaileekin, bezeroekin eta azken erabiltzaileekin –adibidez, kontsumitzaileekin– lehen harreman digitalak garatzea (esaterako, eskariaren araberrako eskaeren automatizazioa...).
- Kudeaketa indibidualizatu eta proaktiboa duen eta bezero edo azken erabiltzailearengana (adibidez, kontsumitzailea) bideratuta dagoen arreta-sistema bat ezartzea.
- Katearen gainerako mailekin, hornitzaile nagusien, bezeroen eta kateko beste eragile batzuen informazio-sistemekin osatzea.
- Informazio partekatuaren trazabilitaterako, kalitate-kontrolerako eta subiranotasunerako sistema bat ezartzea.
- Negozio-eredu berriak sortzea, datu adimendunen kudeaketan eta tratamenduan funtsatuta.
- Elkarlaneko berrikuntzara, gardentasunera, komunikaziora eta abarretara bideratutako «Open Data» plataformak garatzea.

– Eskuratutako tresnak abian jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak.

Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien eta zuraren balio-katean eragina duten eta digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresen proiektuak bakarrik jo ahal izango dira digitalizazio-proiektu estrategikotzat.

C) Abeltzaintza-ustategietarako laguntzak, behi-, ardi-, ahuntz- eta zaldi-azienda geolokalizatzeko lepokoak, itxitura digitalak eta erdi-uruntasuna adierazten duten gailuak erosteko.

Lepokoek, gutxienez, zehaztapen hauek izan beharko dituzte:

– Animaliaaren posizionamendua kontrolatzea denbora errealean – mugikorrerako edo webgunerako aplikazioaren bidez bistaratzea.

– Hesi birtualak sortzeko eta azientzaren baztertze-eremuak zehazteko aukera, mugikorrerako edo webgunerako aplikazioaren bidez.

– Ekipoek animaliekin elkarreragiteko aukera izan behar dute, animaliek errespetatu dituzten mugikorrerako edo webgunerako aplikazioaren bidez definitutako hesi birtualak.

– Bateriak kudeatzeko sistema bat, autosufizientzia eta etorkizunean ordeztzeko aukera bermatzeko.

Erdi-uruntasuna adierazten duten gailuek, gutxienez, zehaztaperen hauek izan beharko dituzte:

– Aplikazio mugikor eta/edo web bidezko baten bidez bistaratzeko aukera.

– Sistemak urrutitik abisatzeko aukera, telefonia mugikorraren bidez.

– Bateriak kudeatzeko sistema bat, autosufizientzia eta etorkizuneko birjarpena bermatzeko.

4. oinarria.– Onuradunak.

1.– 3. oinarriko A) eta B) ataletan adierazitako proiektuetarako laguntza-lerroen kasuan, hemen zerrendatutako edozein izan liteke onuraduna, baldin eta EAeko elikagaien nahiz zuraren balio-katekoa bada: Enpresak, edozein forma juridiko dutela ere. Hona sailkapena:

a) Enpresa txiki eta ertainak (ETE). Mota horren barnean hauek bereizten ditugu:

– Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duena.

– Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duena.

– Enpresa ertaina: gutxienez 50 pertsonari baina 250 pertsonari baino gutxiagori lana ematen dien eta, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra duten enpresak.

b) Enpresa handiak, alegia, enpresa txiki eta ertainen definiziotik kanpo geratzen direnak.

c) Elkarteak.

d) Enpresa-taldeak.

e) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteak eta ondasun-erki-degoak. Horietan parte hartzen duten enpresa guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkartearen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Dena den, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak nahikoa botere izango baitu, onuradun gisa, elkarteari dagozkion egitekoak betetzeko, eta kide bat izendatu beharko dute funtsen hartzaile izateko, zeinak banatuko baitizkie funtsok elkarteko gainerako kideei. Ezin izango da elkarte desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideen preskripzio-epe legez aurreikusitakoa igaro arte.

2.– 3. oinarriko A) eta B) ataletan adierazitako proiektuetarako laguntza-lerroen kasuan, onuradunak nahitaez egon beharko dute alta emanda ekonomia-jardueren gaineko zergan, III. eranskinen zerrendatu diren Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN) epigrafe hauetan.

3.– 3. oinarriko C) atalean adierazitako proiektuetarako laguntza-lerroen kasuan, onuradunak behi-, ardi-, ahuntz- edo behor-azienden abeltzaintza-ustiategien titularra izan beharko du, betiere haren ustiategia, alde batetik, Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorrean (urtarri-laren 16ko 9/2015 Errege Dekretuaren bidez sortua, nekazaritzako lehen mailako ekoizpenean higiene-arloko erkidegoko araudia aplikatzeko baldintzak arautzen dituena), edo, hala badagokio,

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan inskribatuta badago (Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro Orokorrari buruzko irailaren 27ko 203/2011 Dekretuaren bidez sortua); eta, bestetik, betekizun hauetakoren bat betetzen badu:

a) Esnetarako behi-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta 1048/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako eskaera bakarra aurkeztu badu 2025. urtean, eta bertan gutxienez 30 animalia zehaztu bazaizkio esnetarako behi-azientaren ustiategiei lotutako laguntza ordaintzeko (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduan egindako esku-hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan baldintza komunak ezartzeari buruzkoa, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra erregulatzeari buruzkoa).

b) Haragitarako behi-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta 1048/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako eskaera bakarra aurkeztu badu 2025. urtean, eta bertan gutxienez 15 animalia zehaztu bazaizkio behi ume-hazleak mantentzeko laguntza ordaintzeko (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduan egindako esku-hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan baldintza komunak ezartzeari buruzkoa, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra erregulatzeari buruzkoa).

c) Ardi-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta 1048/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako eskaera bakarra aurkeztu badu 2025. urtean, eta bertan gutxienez 200 animalia zehaztu bazaizkio (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023tik aurrera zuzeneko ordainketa moduan egindako esku-hartzeak aplikatzeari eta Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan baldintza komunak ezartzeari buruzkoa, eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskaera bakarra erregulatzeari buruzkoa).

d) Behor-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta nahitaezko urteko aitortzea zaldi-azienda kategorian aurkeztu badu 2025. urtean.

e) Ahuntz-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta nahitaezko urteko aitortzea ahuntz-azienda kategorian aurkeztu badu 2025. urtean.

f) Ganbelu-azienda duen abeltzaintzako ustiategi baten titularra izatea, baldin eta nahitaezko urteko aitortzea ganbelu-azienda kategorian aurkeztu badu 2025. urtean.

5. oinarria.– Diruz laguntzeko moduko kostuak.

1.– 3. oinarriko A) eta B) laguntza-lerroen kasuan, diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko dira 3. oinarrian deskribatutako jardueri lotutako aholkularitza, ingeniarietza, hardware eta softwareko kostuak, eta SAAS soluzioen eta «cloud» ereduaren gisako zerbitzu lagungarriak, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

– 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean sortuak edo fakturatuak izatea.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan ezarritakoa betez, baldin eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen kontratu txikietarako ezarritako kopuruak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora), onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri

bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua. Hirugarrenekin kontratatzea eragiten duenetan aplikatuko da artikulua hori.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautapena (justifikazioan aurkeztuko dituzte eskaintzok) efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraikiz egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko dute proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez dutenean.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik nahitaezkoa bada eskaintza batzuk eskatzea, eta ez badira horiek aurkezten, edo eskaintza ekonomikoena ez den bat aukeratzen bada aukeraketa hori behar bezala justifikatu gabe, ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat eskatu ahal izango du organo emaileak, eta onuradunak ordaindu beharko ditu horrek eragiten dituen gastuak. Halako kasuetan, bi balio hauetatik txikiena kontuan hartuz kalkulatu da dirulaguntza: onuradunak adierazitako balioa edo tasazioaren ondoriozkoa.

– Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen kostuak izango: eskatzaileak berak edo taldeko enpresaren batek egindako lanak, aholkulariaren joan-etorriak, material didaktikoak sortzea, aretoak alokatzea, dietak eta antzekoak. Gastu horiek bereizita agertu beharko dira fakturen kontzeptuan.

– Funtzionamendu- eta mantentze-gastuetan lagundu ahal izango da proiektua martxan jartzen den bitartean, gehienez ere 2026ko abenduaren 31ra artekoak.

2.– C) lerroaren kasuan, 3. oinarriaren C) atalean deskribatutako lepoak erosteko kostua baizik ez da diruz lagunduko. Konexio- eta mantentze-zerbitzuen kostuak ez dira diruz lagunduko. 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean sortutako edo fakturatutako gastuak lagundu ahal izango dira diruz, Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduaren 14.14.a) artikulua araberak.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan ezarritako betez, baldin eta diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen kontratu txikietarako ezarritako kopuruak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) eta betiere horrek hirugarrenekin kontratatzea eragiten badu, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua. Hirugarrenekin kontratatzea eragiten duenetan aplikatuko da artikulua hori.

Azken kasu horretan, onuradunak jakinarazi eta egiaztatu beharko du hiru aurrekontuak lortzea ezinezkoa dela, merkatuan ez dagoelako horiek egiten, ematen edo hornitzen dituen entitate nahikorik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautapena (justifikazioan aurkeztuko dituzte eskaintzok) efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraikiz egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko dute proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez dutenean.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik nahitaezkoa bada eskaintza batzuk eskatzea, eta ez badira horiek aurkezten, edo eskaintza ekonomikoena ez den bat aukeratzen bada aukeraketa hori behar bezala justifikatu gabe, ondasun edo zerbitzuaren peritutasazio bat eskatu ahal izango du organo emaileak, eta onuradunak ordaindu beharko ditu horrek eragiten dituen

gastuak. Halako kasuetan, bi balio hauetatik txikiena kontuan hartuz kalkulatu da dirulaguntza: onuradunak adierazitako balioa edo tasazioaren ondoriozkoa.

4.– Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

6. oinarria.– Finantzaketa.

1.– Agindu honetan ezarritako laguntzak finantzatzeko, 2025eko eta 2026ko ekitaldietarako, 1.500.000 euro bideratuko dira. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko da –Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legea–; horietatik 500.000 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.000.000 euro, berriz, 2026rako konpromiso-kredituari. Honela banatuko da zuzkidura, lerroka eta ekitaldika:

A) 300.000 euro digitalizazio-prozesua hasten ari diren enpresen proiektuei esleituko zaizkie; zehazki, 150.000 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 150.000 euroak, berriz, 2026rako konpromiso-kredituari.

B) 550.000 euro digitalizazio-fase aurreratuan dauden eta 4.0 teknologia txertatu nahi duten enpresen proiektuei esleituko zaizkie; zehazki, 200.000 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 350.000 euroak, berriz, 2026rako konpromiso-kredituari.

C) 650.000 euro abeltzaintza-ustategien titularrek lepokoak erosteko; horietatik, 150.000 euro 2025erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 500.000 euro 2026rako konpromiso-kredituari.

2.– Jarduketa baterako aurreikusitako funtsak estaltzen ez badira, funts gehiago behar dituen beste jarduketa batera transferitu ahal izango dira, 13. oinarrian ezarritako ebaluazio-prozedurari jarraituz. Haborokinak beste lerro bati egotzi ahal izango zaizkio, erabat agortu arte, hurrenkera honetan: 3.A), 3.B) eta 3.C).

3.– Aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko guztizko zenbatekoa % 30 handitu ahal izango da. Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak emango du handitze horren berri, ebazpen baten bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Argitalpenak, baina, ez du eragingo eskabide berriak aurkezteko epea hastea, ezta ebazteko beste epe bat hastea ere.

7. oinarria.– Eskakizun orokorrak.

1.– Agindu honetan iragarritako edozein laguntzaren onuradun izateko, eskatzaileek oinarri honetan ezarritako betekizunak bete behar dituzte, eta, gainera, ez dute izan behar Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluko debekurik. Hauek dira:

a) Diruz lagundu daitezkeen jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egi-tea, eta beste laguntza-esparru batek ez finantzatu izana, 22. oinarrian aurreikusitakoa salbu.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita itzultzeko bete-beharrak ere, hemen ezarritakoaren arabera: Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa. Onuradun bihurtzeko zein emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izateko eskatzen da eskakizun hori, eta, hortaz, betetzen ote den egiaztatuko da esleipena eta ordainketak egitean.

Onuradun bihurtzeko zein emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izateko eskatzen da eskakizun hori, eta, hortaz, betetzen ote den egiaztatuko da esleipena eta ordainketak egitean.

c) Dirulaguntzaren onuradun den pertsona fisiko edo juridiko pribatua ez izatea krisian den enpresa, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

d) Inbertsioak ingurumenaren arloko eta arlo higieniko-sanitarioko arauak bete ditzala Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko den berariazko araudiarekin bat (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena).

e) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso ez izana lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

f) Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean finkatutako arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik bide administratiboko ebazpen irmoaren bidez zigortutako pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek ezin izango dute ez kontratatu, ez Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko sektore publikoko dirulaguntzak eskuratu, dagozkien neurri zuzentzaileak egikaritu arte eta dagokien isuna ordaindu arte.

g) Hartzekodunen konkurtso boluntariorik ez duela eskatu, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota ez dagoela, hartzekodunen konkurtsoan deklarata ez dagoela –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen mende ez dagoela edo desgaitua ez dagoela Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, hartzekodunen konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoelarik.

h) Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izana leporatuta: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

i) Kausaren batean errudun deklarata izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.

j) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan ezak diren Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez izatea Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan ezarritako baldintzetan. Horrez gain, ez egotea hauetan aurreikusitako kasuren batean: Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea eta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legea.

k) Egoitza fiskala ez izatea paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean.

l) Ez egotea berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

m) Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota ez betetzea, hori bete-zeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

n) LGTBfobia egin, bultzatu edo sustatu izana, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

Azkenik, eskatzaileak adierazi beharko du bete egiten dituela oinarri arautzaileetan eskatzen diren betekizun guztiak.

2.– Ezingo dute dirulaguntzarik jaso, halaber, enpresa hauek: haien buru dauden pertsonak edo beste egoera batzuk kontuan hartuta, aurretik debekua jaso duten enpresen jarraipen izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek edo enpresa haien aldaketa, bat-egite edo ondorengo izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen dutenek.

3.– Elkarteen kasuan, Elkartzeko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatueta aurreikusitako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez dago etenda ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan. Gainera, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan beharko dute Zuzendaritza Batzordean, hots, sexuetako batek ere ez du izan behar Zuzendaritza Batzordeko kideen % 40 baino gutxiagoko ordezkartza.

4.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, Merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitateak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu beharko dute, apartatu honetan xedatzen den bezala egiaztatu ere, ordainketa-epealdiak betetzen dituztela, lege horretan ezartzen direnak onuraduna edo entitate laguntzailea izateko. Apartatu hau betetzeko, enpresa hornitzaileari aurretiaz kobratzeko modua ematen dioten finantzaketa guztiak baliozkotzat joko dira, baldin eta kostua bezeroaren kontura bada eta ordaindu ezean hornitzailearen aurka jotzerik ez badago.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan adierazi bezala egiaztatuko da inguruabar hori.

5.– 3.A) eta 3.B) lerroen kasuan, de minimis laguntzei buruzko edozein erregelamendutan ezarritako de minimis araubideari lotutako laguntzaren bat jaso duten eskatzaileek ezin izango dute gaudituz gehieneko laguntzaren zenbatekoa horietako bakoitzeko, eta aplikatu beharreko erregelamendu bakoitzean adierazitakoaren arabera zenbatuko dira, jarraian zehazten den moduan. Era berean, zerga-ekitaldia amaitu aurretik edozein unetan de minimis araubideari lotutako beste edozein dirulaguntza jasotzen bada, hori ere jakinarazi beharko da.

Erregelamendu bakoitzak, gehienez ere, honako zenbateko hauek baimentzen ditu:

– Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, abenduaren 13koa, Europar Bata-sunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa: 300.000,00 euro onuradun bakoitzeko hiru urteko edozein epean.

Erregelamendu hori aplikatu behar den kasuetan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza eman aurreko hiru urteetan jasotako de minimis laguntzak hartuko dira kontuan.

– Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa: 25.000,00 euro onuradun bakoitzeko hiru urteko edozein epetan.

– Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa: 40.000,00 euro onuradun bakoitzeko hiru urte fiskaleko edozein epetan (abian den ekitaldi fiskalean gehi aurreko bietan).

6.– Onuradun izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –artikulu honen 1. paragrafoan adierazten dira debekuak–, bide hauek dituzte entitateek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, betiere Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera; edo, bestela, ziurtagiri administratiboa, kasuaren arabera. Agiri hori agintari eskudunak egiterik ez badu, haren ordezkari Administrazio agintari edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkez daiteke.

8. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, oinarri honen 8. paragrafoan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– 91/2023 Dekretuaren 15.1.a) artikuluan xedatutakoa betez (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko), honako hauek behartuta egongo dira bitarteko elektronikoen erabiltzera Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin harremanetan jartzeko: urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan aipatzen diren subjektuak eta enpresaburu indibidualak edo autonomoak, lanbide-jardueran egiten dituzten izapide eta jarduketarako. Beraz, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira eskabide guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207205>

3.– Eskabidea aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eredu normalizatua erabili beharko da:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207205>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak elektronikoki egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartu beharko da, «Nire karpeta» atalean:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidezteko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207205>

6.– Eskaera ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza, ahalordeen erregistro elektronikoen bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

7.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarrizko edukia oinarri hauen eranskin gisa argitaratu da.

8.– Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Pertsona juridikoek, erakundea eratzeko eskrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erregistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita.

b) Honako hauek biltzen dituen memoria:

i) Beharren azterketa eta irtenbide teknologikoen egokitasuna.

ii) Espero diren emaitzak eta adierazleak.

iii) Aurrekontu xehea.

iv) Alternatibaren hautaketa.

v) Ekin beharreko ekintzen deskribapena eta gauzatzeko epea.

vi) Laguntza emanaz gero, enpresaren leihakortasunean eta produktibitatean zenbateko hobekuntza ekarriko duen.

vii) Ingurumen- eta jasangarritasun-hobekuntzak sustatzea.

c) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteei eta ondasun-erki-degoei dagokienez, kide guztiek sinatutako agiri bat, non izendatzen baita, batetik, ordezkari edo ahaldun bakarra, elkartearen onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen, eta, bestetik, funtsen hartzaile izango den kide bat, elkarteko gainerako kideen artean funtsok banatuko dituen.

d) Entitateek 30.000,00 euro baino gehiago ematea nahi badute, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko, bitarteko hauek erabiliko dira:

i) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan pertsona fisikoak sinatuta, edo, pertsona juridikoen kasuan, administrazio-organoak edo haren baliokideak sinatuta. Horrez gainera, b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudiari jarraituz.

ii) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoek honako agiri hauetako bat aurkeztu ahal izango dute:

1) Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek sinatutako ziurtagiria, zeinean banakatuta agertuko baita ikuskatutako azken urteko kontuen memorian azaltzen diren ordainketei buruzko informazioa, baldin eta kontu horien arabera abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-mailara (apartatu honetan ezarritakora) iristen bada, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko

15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatzen den informazioari kasu eginez. Ziurtagiri hori hurrengo ekitaldiaren urteko kontuak ikuskatu arte izango da baliozkoa.

2) Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria ezin bada egin, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako «Prozedura Adostuei buruzko Txostena», zeinaren bidez, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaindu gabe dauden fakturen lagin adierazgarrian oinarrituta, ondorioztatzen baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak bete direla, inolako salbuespenik gabe, edo, salbuespenak antzemanaz gero, apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea ez dutela eragozten.

Eskatzen den betetze-maila erdietsizat joko da baldin eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-maila Enpresen sorkuntzari eta hazkunderari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan ezartzen den ehunekoaren berdina edo handiagoa bada.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira agiriok.

e) 50 langile baino gehiago dituzten enpresek Euskadiko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan eta Gordailuan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

f) 3.A) eta 3.B) lerroetako eskatzaileek JEZean alta eman izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, III. eranskinean jasotako JESNetako (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala) epigraferen batean.

g) Eta laguntza kuantifikatzeko entitate eskatzaileak aurkeztu nahi duen agiri osagarri oro.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatzen baita eskatzaileak agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela, eta Administrazioak eskatzen duenean haren esku jarriko duela.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua betetzen dela egiaztatzeari dagokionez, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira eskatutako agiriak.

9.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du NAN edo AIZ, IFZ eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela, bat etorritik Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa). Pertsona edo entitate interesdunak uko egin ahal izango dio organo kudeatzaileak inguruabar horiek zuzenean egiaztatzeari. Uko eginez gero, pertsona edo entitate interesdunak bere kabuz aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak. Era berean, behi-, ardi-, ahuntz- eta behor-aziendako ustiategi-titularrei lepokoak eskuratzen laguntzeko, ofizioz egiaztatuko ditu erregistroko datuak eta 2025eko eskabide bakarrean zein urteroko nahi-taetzko aitorpenean zenbatzeko moduko animalien datuak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluekin bat etorritik, interesdunak ez daude behartuta jada administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek eginak direnak ekartzera. Administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatzeko edo eskuratzeko aukera izango du, interesdunak aurka egin ezean. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta

administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformetan edo hartarako prestatutako gainerako sistema elektronikoen bidez kontsulta eginez, non eta prozeduran ez den interesdunaren kontraktotasun espresua jasotzen edo aplikatzekoa den lege bereziak ez duen eskatzen adostasun espresua ematea. Salbuespenezko moduan, administrazio publikoek ezin badituzte aipatutako dokumentuak eskuratu, berriz ere eskatu ahal izango diote interesdunari ekar ditzala.

10.– Laguntza-eskabidea, eskatutako agiriekin batera, nahi den hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Era berean, laguntza-eskaeraren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

11.– Eskabideak oinarri honetan eskatutako dokumentazioa ez badauka, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko diren agiriak eransteke. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikadurako eta Landa garapeneko sailburuordeak ebazpena eman ondoren. Zuzenketa egin den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

12.– Enpresa txiki eta ertainek (ETE) izaera hori egiaztatu beharko dute, agiri hauek aurkeztuta:

a) Pertsona fisikoen kasuan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kopia, ekonomia-jardueren eranskinarekin batera, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldikoa.

b) Pertsona juridikoen kasuan: sozietateen gaineko zergaren kopia bat, eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldikoa.

Agiriekin batera, dokumentazioan jasotako egoera aldatu ez dela dioen adierazpena.

13.– Edonola ere, Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak eskatzaileari aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iriztitako bestelako argibide edo agiri osagarriak eska diezazkioke.

Agindu honen 4. oinarriaren d) apartatuan zehaztutako onuradunen kasuan, proiektuan parte hartzen duten enpresa edo entitate guzti-guztiei buruzkoak izango dira oinarri honen 8. apartatuan adierazitako agiriak.

14.– Helbide honetan ikus daiteke identifikaziorako eta sinadura elektronikorako zein bitarteko onartzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren egoitza elektronikoa:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

9. oinarria.– Dirulaguntza jaso duten jarduerak kontratatzea onuradunek.

1.– Onuradunak hirugarrenei kontratatu ahalko die, oso-osorik edo zati batean, diruz lagundutako jarduera. Jarduera gauzatzeko kontratua diruz lagunduko den jardueraren % 100ekoa izan daiteke.

2.– Kontralistek onuradunaren aurrean baino ez dute betebeharririk izango, eta onuradunari dagokio diruz lagundutako jarduera ondo gauzatzeko erantzukizun osoa Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren aurrean.

3.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunen erantzukizuna da diruz lagunduko den jarduera hitzartua gauzatzeko agindu honetan ezarritako mugak errespetatzen direla zaintzea, diruz lagundutako gastuen izaera eta zenbatekoari dagokionez; kontralistek, aldiz, agindu honen

15. oinarriaren 7. paragrafoan adierazitako lankidetzeta-betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzeko aukera eman.

4.– Onuradunek inola ere ezin izango dute honako hauekin hitzarmenik egin diruz lagundutako jarduera osorik ala partez egikaritzeko:

a) 7. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen badira, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat duten pertsona fisiko edo juridikoekin, hauek gertatzen direnean izan ezik:

1) Aldez aurretik organo emailearen berariazko baimena eskuratzea ebazpen arrazoitu baten bidez.

2) Dirulaguntzaren zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostuarena baino handiagoa. Kostua egiaztatzeko, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin lotura dagoela joko da Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluko 8. apartatuan adierazten diren inguruabarretakoren bat betetzen bada.

e) Deialdi eta programa honetan laguntza eskatu duten baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo balorazio nahikoa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoekin.

10. oinarria.– Balorazio-irizpide orokorrak.

1.– 3.A) eta 3.B) lerroetako proiektuak baloratzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) «Proiektu estrategikotzat» joa izatea.

10 puntu emango zaizkie, sektorean, berrikuntzan eta enpleguan duten eragina dela eta, EAEko Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeak estrategikotzat eta traktoretzat jotzen duen sektore edo azpisektore batekoak diren digitalizazio-proiektu guztiei.

Estrategiko eta traktoretzat jotzen diren sektore edo azpisektoreak zein diren Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariaren ebazpen baten bidez emango da jakitera, zeina EHAAn argitaratuko baita, Batzordea eratu aurretik.

b) Jardun-planaren balorazioa. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1) Aurkeztutako memoria teknikoaren kalitatea; memoria horretan argi eta garbi azalduko dira helburuak, esperotako emaitzak, egutegia, egin beharreko zereginak, erantzukizunen banaketa, aurrekontua hainbanatzeko metodoak eta abar: gehienez 50 puntu.

	Aurkeztutako memoriaren kalitatea		50
1.1	Beharren azterketa eta irtenbide teknologikoaren egokitasuna	Gehienez	10
1.2	Espero diren emaitzak eta adierazleak	Gehienez	10
1.3	Aurrekontuaren egokitasuna	Gehienez	5
1.4	Irtenbidearen eragin teknologiko handia	Gehienez	10
1.5	Produktibitate- eta jasangarritasun-hobekuntzak sustatzea	Gehienez	10
1.6	Ingurumen- eta jasangarritasun-hobekuntzak	Gehienez	5

2) ETEtzat hartzea. Entitate edo pertsona onuraduna ETEtzat jo izana, Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera: 5 puntu.

3) Kooperatiba edo elkartetzat hartzea: 10 puntu.

4) Proiektuak 4.0 teknologia barne hartzea: gehienez 20 puntu; honela:

- Adimen artifiziala / «Machine Learning» / Ikusmen artifiziala: 5 puntu.
- «Blockchain»: 5 puntu.
- «Big Data» / «Business Intelligence»: 5 puntu.
- Sentsorika / Gauzen Interneta (IoT): 5 puntu.
- Zibersegurtasuna: 5 puntu.
- Robotika: 5 puntu.
- Posizionamendu globalari buruzko informazioa / Drone-teknologia: 5 puntu.

5) Proiektuaren kokapena, maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuan (2023-2027 Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa eta landa-eremuen karakterizazioari buruzkoa) araututako landa-eremuen karakterizazioaren arabera, 10 puntu gehienez ere, honela:

- Kalteberatasun-maila 1 edo 2 duten Arreta Bereziko Eremuak (ABE): 10 puntu.
- Kalteberatasun-maila 3 edo 4 duten Arreta Bereziko Eremuak (ABE) edo Jardun Lehentsiko Eremuak (JLE): 10 puntu.

6) Diruz lagundu daitekeen jarduketa-proiektuaren aurrekontuaren % 50 baino gehiago hardwarea edo softwarea erosteko erabiltzea: 5 puntu.

2.– Laguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira memoria teknikoaren kalitateari buruzko apartatuan, eta 30 puntu, guztira, jarduketa-planaren balorazio orokorrean.

3.– Aurkeztu diren eta gutxienera puntuazioa lortu duten proiektuen ordena zehazteko, estrategikotzat jotako espedienteak hartuko dira kontuan lehenengo, aurreko puntuko a) apartatuan zehaztutakoaren arabera; horien ondoren, proiektu ez-estrategikoak hartuko dira kontuan. Gero, jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da ordena, handienetik txikienera.

4.– 3.C) Ierroari dagozkion laguntzen kasuan, alderdi hauek baloratuko dira:

1) Ustiategien titularrak emakumeak izatea, haiek bakarrik edo partekatuta; ustiategien titularrak pertsona juridikoak badira, emakumeek gutxienez % 50eko partaidetza izatea sozietatea bi kidek osatzen duten kasuetan, edo, behintzat, partaidetza orekatua izatea gainerako kasuetan: 15 puntu.

2) Ustiategiek kalitate-bereizgarri baten bidez ziurtatuta izatea beren ekoizpena (ekoizpen ekologikoa, Idiazabal jatorri-deitura, Euskal Okela-Baserriko Haragia, Euskal Esnea, Euskal Esne Bildotsa): gehienez 15 puntu.

3) Ustiategiko abere-errola nagusiki arraza autoktonoek osatu bada: 10 puntu, gehienez.

Arraza hauek joko dira EAEn autoktonotzat:

- Behitan: terreña, betizu eta behi gorria.
- Ahuntzetan: azpi gorria.
- Arditan: latxa, carrazana eta sasi ardia.
- Behorretan: Euskal Herriko mendiko zaldia, pottoka eta Enkarterriko astoa..

4) Aurkeztutako memoriaren balorazioa: gehienez 25 puntu.

5) Proiektuaren kokapena, maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuan (2023-2027 Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa eta landa-eremuen karakterizazioari buruzkoa) araututako landa-eremuen karakterizazioaren arabera, 15 puntu gehienez ere, honela:

- 1. mailako kalteberatasun-maila duten Arreta Bereziko Eremuak (ABE), indarrean dagoen landa-zonakatzearen dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera: 15 puntu.
- 2. mailako kalteberatasun-maila duten eremuak, indarrean dagoen landa-zonakatzearen dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera, edo Jardun Lehenetsiko Eremuak (JLE):(ez da bateragarria izango aurreko puntuazioarekin): 15 puntu.
- 3. mailako kalteberatasun-maila duten Arreta Bereziko Eremuak (ABE), indarrean dagoen landa-zonakatzearen dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera: 10 puntu.
- 4. mailako kalteberatasun-maila duten Arreta Bereziko Eremuak (ABE), indarrean dagoen landa-zonakatzearen dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera: 5 puntu.

6) Ustiategien titularrak gazteak izatea (41 urtetik beherakoak): 10 puntu.

7) Belaunaldi-erreleboaren ondoriozko ustiategiak: 10 puntu.

Laguntza jaso ahal izateko, gutxienez 30 puntu lortu beharko dira, eta proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, dirulaguntzaren lehentasunaren ondorioetarako.

11. oinarria.– Laguntzaren intentsitatea eta zenbatekoa.

1.– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira, eta aurretik aipatutako oinarrietan jasotako irizpideak aplikatuko zaizkie.

– 3. oinarriko A motako proiektuak (enpresak digitalizatzen hasteko laguntzak): laguntza 75.000 eurokoa izango da gehienez.

– 3. oinarriko B motako proiektuak (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak txertatzen laguntzeko laguntzak): laguntza 300.000 eurokoa izango da, gehienez, estrategikotzat jotzen diren proiektuetan, eta 250.000 eurokoa gainerakoetan.

– 3. oinarriko C motako proiektuak (abeltzaintza-ustiategien titularrek lepokoak erosteko laguntzak): laguntza ustiategiko 60.000 eurokoa izango da, gehienez, ustiategi guztientzat. Gainera, ardi-aziendarentzako lepokoak eskatzen dituzten ustiategiek lepoko bakar bat eskatu ahal izango dute 20 animaliaiko.

2.– 3. oinarriko A motako (enpresak digitalizatzen hasteko laguntzak) proiektu guztietan laguntzaren intentsitatea edo diruz lagundu daitezkeen kostuen laguntzaren ehunekoak zehazteko, kontuan hartuko dira, batetik, enpresa mota eta, bestetik, jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa (10. oinarriko 1.b apartatuan ezarritakoaren arabera). Bestalde, 3. oinarriko B motako (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak txertatzen laguntzeko laguntzak) proiektu ez-estrategikoen kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, enpresa mota eta, bestetik, jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa (10. oinarriko 1.b apartatuan ezarritakoaren arabera).

a) Elkarreak, kooperatibak, enpresa-elkarreak, mikroenpresak, enpresa ertainak eta enpresa txikiak:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 60 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 55 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 45 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 40 emango zaie 30-49 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

b) Gainerako enpresak:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 30 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 27,5 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 22,5 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 emango zaie 30-49 puntu lortzen dituzten jarduketa-planei.

3.– 3. oinarriko B motako (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak txertatzen laguntzeko laguntzak) proiektu estrategikotzat jotzen diren proiektuen kasuan, laguntzaren

intentsitatea edo diruz lagundu daitezkeen kostuen laguntzaren ehunekoa zehazteko, kontuan hartuko dira, batetik, enpresa mota eta, bestetik, jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa (10. oinarriko 1. apartatuko b puntuazio ezarritakoaren arabera).

a) Elkarteak, kooperatibak, enpresa-elkarteak, mikroenpresak, enpresa ertainak eta enpresa txikiak:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 70 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 65 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 60 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 55 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50 emango zaie 30-49 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

b) Gainerako enpresak:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 45 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 42,5 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 40 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 37,5 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 35 emango zaie 30-49 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

4.– 3.C) motako proiektu guztietan laguntzaren intentsitatea edo diruz lagundu daitezkeen kostuen laguntzaren ehunekoa zehazteko, kontuan hartuko da espedienteak 10.4 oinarrian xedatutakoaren arabera lortutako puntuazioa:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 85 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 75 emango zaie 60-79 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 65 emango zaie 40-59 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50 emango zaie 30-39 puntu lortzen dituzten jarduketa-planari.

12. oinarria.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

Agindu honetan araututako laguntzak norgehiagoka bidez esleituko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

13. oinarria.– Organo kudeatzailea eta balorazio-batzordea.

1.– Elikagaien Politika eta Industriako zuzendariak izango du agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute betekizunak betetzen diren, eta berariaz jasota utziko dute hori.

3.– Proiektuak ebaluatu eta baloratzeko, eta balorazio-irizpide objektiboak aplikatzeko eta haiek haztatzeko, balorazio-batzorde bat sortuko da. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzaren Ikerketa Programen arduraduna izango da Balorazio Batzordeko burua. Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako teknikari bat eta HAZI Fundazioko ordezkari bat izango dira batzordekideak, eta lehenengoak idazkari-lanak egingo ditu. Balorazio Batzordearen osieran, bi sexuen presentzia orekatua bermatuko da, gaitzuntza, kompetentzia eta prestakuntza egokia duten kideekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izan beharko dute kideek.

4.– Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko aditu diren pertsoneri eskatu ahal izango die hala bileretan parte hartzeko nola aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

5.– Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak emango duen ebazpen baten bidez, ebaluazio-jarduketara hasi aurretik.

6.– Balorazio-batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

a) Aurkeztu diren eskabideak aztertu eta ebaluatzea; identifikatu egingo dute zeintzuek betetzen duten aplikatu beharreko araudia eta zeintzuek ez, eta baloratu egingo dituzte bai proiektua, bai ezarritako irizpide objektiboen betetze-maila.

b) Baloratzeko eta kuantifikatzeko finkatzen dituen irizpide objektiboetan oinarrituz, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza eman proposatzea.

7.– Balorazio Batzordeak barne-funtzionamendurako arau propioak ezarriko ditu. Arauok aurreikusten ez dituzten gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

8.– Balorazio Batzordean parte hartzeko eta beste zeregin batzuetarako, Hazi Fundazioak entitate lankide gisa jardungo du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9.– Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak hitzarmen bat egingo du Hazi fundazioarekin, haren helburu sozialarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak eta edozein jarduera egiteko, betiere horrek ez badakar administrazio-ahalak baliatzea.

10.– Hazi fundazioak eginkizun hau egingo du:

«Ezarritako ebaluazio-organoari laguntza ematea eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko lan materialetan, arlo horretan euskarri tekniko aditua emanez».

11.– Balorazio Batzordeak txosten bat egingo du organo kudeatzailearentzat, eta, bertan, egingako ebaluazioaren emaitza zehaztuko da.

Organo kudeatzaileak, kide anitzeko organoaren txostena eta espedientea ikusi ondoren, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta.

Behin-behineko ebazpena soilik jakinaraziko da baldin eta interesdunek aurkeztutakoez bestelako egitateak edo alegazioak eta frogak agertzen badira prozeduran. Horrelakoetan, interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta 10 eguneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Ondoren, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da, eta datu hauek eman beharko dira bertan: dirulaguntza zein eskatzaileari edo eskatzaileei ematea proposatzen den, dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, ebaluazioa eta ebaluazioa egiteko erabili diren irizpideak.

Baldin eta ez bada beharrezkoa behin-behineko ebazpen-proposamena interesdunei jakinaraztea, behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikulua araber.

14. oinarria.– Ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta errekurtsioak.

1.– Behin betiko ebazpen-proposamena onesten denean, organo eskudunak, gaian eskumena duen sailburuordeak, prozedura ebatziko du.

Hartuko den ebazpenak honako informazio hau izan beharko du gutxienez:

A) Onartutako eskabideei buruz:

- 1) Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK edo NAN/AIZ.
- 2) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen bidez finantzatutako zenbatekoa eta xedea, eta ordaintzeko modua eta epeak.
- 3) Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta kostuak, kasuan kasuko laguntzaren zenbatekoa adierazita.
- 4) Proiektua gauzatzeko epea eta proiektuak gauzatzeko epearen bukaera-data.
- 5) Justifikatzeko modua.
- 6) Laguntzaren izaera, Europako erregelamendu aplikagarriaren arabera.

B) Aintzat hartu ez diren eskabideei dagokienez:

- 1) Eskatzailearen izena, IFK edo NAN/AIZ.
- 2) Laguntza ukatzeko arrazoiak.

2.– Norgehiagoka bidezko prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluari jarraikiz. Argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Hala ere, kontuan hartuta diruz lagundutako proiektu bakoitzak bere berezitasunak dituela eta interesdun bakoitzari betearazteko baldintza espezifikoak helarazten zaizkiola, horrez gain, eta modu osagarrian, dirulaguntza emateko ebazpena argitaratu ondoren, ebazpena eta baldintza horiei buruzko banakako edukia jakinaraziko zaizkie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Informazioa elektronikoki helaraziko da, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» zerbitzuaren bidez.

3.– Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea amaitu eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dute beren eskabidea, hala jartzen baitu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan.

4.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio organoari berari nahiz Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorritik. Egintza espresua ez balitz, eskatzaileak eta balizko interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute edonoz, administrazio-isiltasunaren ondoreak indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

15. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako betebeharrak bete behar dituzte, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan eta Europako erregelamendu aplikagarrietan jasotakoak barne. Honako hauek dira:

1) Laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean egitea diruz laguntzen den jarduera; deialdiaren urtean hasi behar da inbertsioa edo gastua.

2) Eman den xede zehatzerako erabiltzea laguntza.

3) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, hamabost eguneko epean, dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntzari berariaz uko egin ezean, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

4) Emandako laguntzaren zenbatekoarekin ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, dirulaguntza eman den helbururako bideratu beharko dira ondasunak, gutxienez horiek gauzatu eta hurrengo 5 urteetan –erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasunen kasuan– edo hurrengo 2 urteetan gainerako ondasunen kasuan, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.4 artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta.

5) Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea jarduera edo proiektua partez edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

6) Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete ote diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko zaie.

7) Baldin eta beste administrazio batek edo ente publiko zein pribaturen batek helburu bere-rako ematen duen beste dirulaguntza edo laguntzarik eskatu eta, hala badagokio, lortzen bada, horren berri ematea, idatziz, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzari, inguruabar horren berri izan eta hurrengo hamabost eguneko epean eta, nolana ere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu aurretik.

Gainera, de minimis araubideari lotutako laguntzen kasuan, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua aplikatu behar bada, laguntzaren gehieneko zenbatekoa zenbatzeko, hiru urteko edozein alditan eskatu eta jasotako de minimis laguntza guztiak jakinarazi beharko dira eskabidearekin batera, baldin eta laguntza horiek de minimis erregelamenduren baten mende badaude. Era berean, urtea amaitu aurretik edozein unetan de minimis araubideari lotutako beste edozein dirulaguntza jasotzen bada, hori ere apartatu honetan adierazitako moduan jakinarazi beharko da.

Gainera, 1408/2013 (EB) eta 717/2014 (EB) erregelamenduak aplikatu behar badira, dagokion zerga-ekitaldian eta aurreko bi ekitaldietan eskatu eta jasotako de minimis laguntza guztiak jakinarazi beharko dira eskabidearekin batera, baldin eta laguntza horiek de minimis erregelamenduren baten mende badaude. Era berean, zerga-ekitaldia amaitu aurretik edozein unetan de minimis araubideari lotutako beste edozein dirulaguntza jasotzen bada, hori ere apartatu honetan adierazitako moduan jakinarazi beharko da.

8) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri emango zaio, idatziz, Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzari, 19.2 oinarrian ezarritakoaren arabera. Jakinarazpen hori inguruabar horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko da, eta, nolahi ere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu aurretik.

9) Gastuei eta diruz lagundutako jardueri buruz ematen den informazio edo publizitate guztian, argiki jasotzea Eusko Jaurlaritzaren funtsekin finantzatu direla jarduerok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan xedatuarekin bat.

10) Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

11) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne; izan ere, agiri horiek egiaztatze- eta kontrol-jarduketetan erabil daitezke.

12) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak organo emaileari itzultzea edo, diruz lagundutako jardueraren edo egindako jarduketaren kostua baino gehiago jasoz gero, soberakina organo emaileari itzultzea.

13) Ikuspegi interseksionala eta, bereziki, sexuari eta generoari dagokion alderdia errespetatzen dituen hizkera eta irudiak erabiltzea dirulaguntza jasotzen duen jarduera edo proiektuak behar dituen agiri eta material guztietan.

14) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta bereziki euskararen erabilera bermatzea.

15) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, onuradunak konpromisoa hartu behar du enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko aipatutako legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

16) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, onuradunak konpromisoa hartu behar du gehiegizko finantzaketarik ez jasotzeko.

16. oinarria.– Gehieneko egikaritze-epeak.

1.– Inbertsioak edo gastuak urtebetean edo urte anitzetan gauzatu ahal izango dira. 2025eko aurrekontu-ekitaldian hasi behar dira gauzatzen diruz lagundutako ekintzak.

2.– Proiektuak gauzatzeko epea 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

17. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikulua betez, dirulaguntza jaso duen inbertsio- edo gastu-proiektua gauzatu dela eta onuradun izateko eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari:

a) Egindako jarduketan justifikazio-memoria bat, informazioa emanaz jarduketa-plana bete-zeari eta jardueren betetze-mailari buruz, bai eta laguntza emateko kontuan hartu diren betekizun eta baldintzak bete izanari buruz ere.

b) Faktura originalak eta froga-balio baliokidea duten bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, faktura jaulkitzeko beharrik ez dagoen kasuetan, Fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta dago-kien ordainketa-frogagiria.

c) Adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiriak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

2.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauden. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio uko baimen inplizitu horri, eta, hala egiten badu, dago-kion agiri edo ziurtagiria aurkeztu beharko du, bat etorriz Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

3.– Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendariak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo. Eskaera hori arrazoitu egin beharko da.

4.– Aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, proiektuaren azken ebaluazioa egingo dute Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzako langileek, eta proiektuak berarekin soilik inbertsioa edo soilik gastua badakar, edo inbertsioa eta gastua elkarrekin, proiektua gauzatu dela adierazten duen azken ziurtagiria egingo dute.

5.– Laguntzak behar bezala kudeatu eta ordainduko direla bermatzeko, garaiz aurkeztu beharko dira egindako gastuaren justifikazio-agiriak: urtebeteko proiektuen kasuan, 2026ko urtarrilaren 31 izango da azken eguna, eta urte anitzeko proiektuen kasuan, berriz, 2027ko urtarrilaren 31, betiere

ordainketa 2025eko abenduaren 31 baino lehen egin bada urtebeteko proiektuetan, eta 2026ko abenduaren 31 baino lehen urte anitzeko proiektuetan.

18. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

Entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan jasota egon beharko du. Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

1.– Honela ordainduko dira 3.A), 3.B) eta 3.C) lerroetako laguntzak:

a) Ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, aurretiko lehen ordainketa bat egingo da, zeina emandako laguntzaren % 20 izango baita. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Konturako ordainketak egin ahal izango dira urte bakoitzean, proiektuak gauzatzeko erritmoaren arabera. Horretarako, interesdunek eskaera egin beharko dute aurretik. Gehienez ere, konturako ordainketa bat egingo da urte bakoitzeko. Konturako ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 17. oinarriaren 1. paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Ezin izango da konturako ordainketarik eskatu ordainketa aurreratua justifikatu gabe.

2.– Inbertsioak ez badira egiten gehieneko epeen barruan, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeko agiriak ez badira aurkezten epe barruan, onuradunek dirulaguntza hartzeko eskubidea galduko dute, eta, hala badagokio, agindu honen 21. oinarriko berreskuratzeko-prozedura jarriko da abian.

3.– Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarreei eta ondasun-erki-degoei dagokienez, funtsen hartzaile izateko izendatu den kideari egingo zaio ordainketa, eta hark banatuko ditu funtsak elkarteko gainerako kideen artean.

19. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero edo beste entitate publiko nahiz pribatu batek emandako beste laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio Elikagaien Politika eta Industriako Zuzendaritzari. Proiektua gauzatzen amaitu aurretik, eta baliteke, horren ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, baldin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritako eta agindu honetan adierazitako betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen helburua betetzen badira. Horretarako, ebazteko eskumena duen organoak dagokion aldatzea-ebazpena emango du, hala egokituz gero emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko. Hala bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan jasotako organo emaileari berreskuratzeko prozedura hasiko da.

2.– Bat etorritz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluekin, dirulaguntza ematen duen organoak aukera izango du emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzeko, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirulaguntza aldatzea interesdunak eskatuz gero, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14.e) artikuluan adierazitako betebeharra betez jakinaraztea onuradunak, jakin bezain laster eta, nolana ere, jasotako funtsen aplikazioa justifikatu baino lehen.

- b) Zenbatekoa gehitu behar ez izatea.
- c) Oinarri erregulatzailen xedeen artean egotea gauzatu den edo gauzatzekoa den jarduera edo jokabidea.
- d) Aldaketa justifikatzen duten baldintzak onuradunaren borondatearen arabekoak ez izatea.
- e) Aldaketa dakarten elementu eta inguruabar berriak, hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izanez gero, dirulaguntza ez emateko arrazoi ez izatea, eta aldaketak ez eragitea hasieran onetsitako proiektua nabarmen aldatzea.
- f) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

3.– Dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat jaso badu onuradunak eta aldaketaren ondorioz dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu behar bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

20. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileek atzera egin ahal izango dute, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabidea helarazi beharko diote Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

2.– Laguntzaren onuradunak 15 eguneko epea izango du emandako laguntzari uko egiteko, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, 15. oinarriko 3. apartatuan jasotakoari jarraikiz. Uko egitea idatziz aurkeztuko zaio Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

Uko-egitea onartu ondoren, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

Halaber, aipatu bezala, 15 egunen ostean ere uko egin dakiok, baina horrek jasotakoa itzuli beharra ekarriko du, dagozkion berandutze-interesak gehituta.

21. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluekin bat etorritik, honako kasu hauetan berreskuratu behar zaizkio organo emaileari jasotako kopuruak, eta exijitu berandutze-interesak, dirulaguntza ordaindu zenetik organo emaileari berreskuratu behar zaiola erabakitzen den egunera arte sortutakoak, edo zordunak organo emaileari dirulaguntza berreskuratzeko egunera arte sortutakoak data hori dirulaguntza organo emaileari berreskuratu behar zaiola erabakitzen den eguna baino lehenagokoa bada:

a) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez denean edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean eta, hala badagokio, dirulaguntzaren oinarri erregulatzailetan ezarritako moduan justifikatzen ez denean.

b) Dirulaguntza baldintzak bete gabe edo baldintzak faltsutuz eskuratzen denean edo hura eskuratzea galaraziko luketen baldintzak ezkutatzuz eskuratzen denean.

c) Dirulaguntzaren helburua, jarduera edo proiektua betetzen ez denean edo dirulaguntzaren bidez hartu behar den jokabidea hartzen ez denean.

d) Dirulaguntza emateagatik ezarritako baldintzak betetzen ez direnean.

e) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 12.5.d), 14.c) eta 42. artikuluek ezartzen dituzten kontrol-jarduketei erresistentzia, aitzakiak edo oztopoak jarren zaizkienean edo kontrol horiei uko egiten zaienean.

f) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan biltzen diren publikotasunerako neurriak betetzen ez direnean.

g) Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 16.3 artikuluan adierazitako kasuan, organo emaileari berreskuratu beharko zaio diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik lortutako soberakina, bai eta berandutze-interesak ere.

2.– Onuradunaren betetze-maila erabateko betetze-mailara nabarmen hurbiltzen denean eta onuradun edo entitate laguntzaile horrek egiaztatzen duenean bere jarduna konpromisoak betetzera bideratuta dagoela zalantzarik gabe, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da, edo, hala badagokio, zati bat berreskuratu beharko dio organo emaileari, eta egindako jarduera osoaren aldean dagoen proportzioan zehaztuko da haren kalkulua.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako ez-betetzereen bat egingo balu onuradunak, dirulaguntza organo emaileari berreskuratzeko prozedura abiaraziko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta 698/1991 Dekretuan araututakoa betez (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzkoa), hargatik eragotzi gabe bidezkoak izan daitezkeen gainerako ekintzak. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari bada-gokio, pro rata temporis egingo da dirulaguntza organo emaileari berreskuratzeko prozedura.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

4.– Itzultze-prozedura administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio dagokion zehatze-prozedura hasteko.

22. oinarria.– Bateragarritasunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein entitate publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien baturak ez baditu gainditzen agindu honek egoera bakoitzerako ezartzen dituen gehieneko ehunekoak. Muga hori gaindituz gero, emandako kopurua soberakinaren munta berean murriztuko da, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez, entitate onuradunari entzun ondoren.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, baldin eta laguntzen mugak desberdinak badira, entitate onuradunarentzat onuragarriena den muga hartuko da kontuan gaindikina kalkulatzeko.

3.– Era berean, de minimis araubideari lotutako dirulaguntzen kasuan, beste edozein administrazio publikok edo ente publiko zein pribatuk emandako beste de minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira laguntza hauek, baldin eta guztien artean ez bada gainditzen aplikatu beharreko erregelamendu bakoitzean onuradun bakoitzarentzat ezarritako gehieneko zenbatekoa. Kasu horretan, gehieneko zenbateko horretara egokitu arte gutxituko dira agindu hau betez eman beharreko zenbatekoak.

7. oinarriko 5. apartatuan dago zehaztuta enpresa bakar batek estatu kide bakoitzean zenbaitko de minimis laguntzak jaso ditzakeen, gehienez, hiru urteko edozein alditan.

23. oinarria.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: Diru-laguntzak Elikagaien kalitatearen eta industriaren arloan.

– Arduraduna: Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaria; Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

– Helburua: Elikagai Politika eta Industriako Zuzendaritzaren laguntzen, beken eta I+Garen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.

– Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.

– Hartzaileak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS). Organismo ordaintzailea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-cap2-eu.shtml>

– Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/168100-cap2-eu.shtml>

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

II. ERANSKINA

ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA

Laguntza eskatzeko inprimakia webgune honetan dago eskuragai:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207205>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

– Erreferentziako pertsonaren identifikazio-datuak, aurkezpenarekin eta justifikazioarekin lotuta solaskide-lanak egiteko:

- Izen-abizenak.
- Lanpostua edo kargua.
- Telefono finkoa / Mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Identifikazio-agiria: mota (NAN/AIZ) eta zenbakia.

– Eskatzailearen identifikazio-datuak:

- Entitatearen izena (pertsona juridikoen kasuan bkarrik).
- Pertsona fisikoaren izen-abizenak.
- Identifikazio-agiria: mota (IFK/NAN/AIZ).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Lurralde historikoa.
- Sexua (pertsona fisikoek soilik).
- Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala.
- Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
- Jakinarazpenetako hizkuntza.

1.– Informazio orokorra.

1.1.– Inbertsio- edo gastu-proiektuaren titulua.

1.2.– Jarduketa-proiektuaren deskribapen laburra (gehienez 200 hitz).

1.3.– Jarduketa-proiektuaren lurralde-eremua (kokapen zehatza: proiektua gauzatuko den eremuak, hiriak, auzoak edo udalerrriak).

1.4.– Jarduketa-proiektuaren iraupena:

Aurreikusitako hasiera-data	
Amaiera-data	
Gauzatze-aldi osoa	

1.5.– Jarduketa-proiektuaren finantzaketa:

Eskatutako dirulaguntza	euro
Beste dirulaguntza batzuk (adierazi)	euro
Onuradunaren ekarpena	euro
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)	euro
Proiektuaren kostua, guztira	euro
Diruz lagundu daitekeen kostua	euro

2.– Memoria teknikoa.

2.1.– Beharren azterketa eta proposatutako irtenbidearen egokitasuna, gehienez 500 hitz.

2.2.– Zer emaitza eta adierazle espero diren (deskribatu aurreikusitako emaitzak eta horiek neurtzeko erabiliko diren adierazleak):

1. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:
2. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:
3. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:

2.3.– Aurrekontu xehea:

Diruz laguntzeko moduko kostuak	2025	2026
Aholkularitza, guztira		
01. gastua		
02. gastua		
03. gastua		
Ingeniaritza, guztira		
04. gastua		
05. gastua		
06. gastua		
Softwarea eta hardwarea, guztira		
07. gastua		
08. gastua		
09. gastua		
Lepokoak eskuratzea		
10. gastua		
11. gastua		
12. gastua		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
13. gastua		
14. gastua		
15. gastua		
Guztira		

2.4.– Alternatibaren hautaketa (deskribatu hautatu diren gastu/jarduera alternatibak), gehienez 1.000 hitz.

2.5.– Egin beharreko ekintzen deskribapena eta gauzatzeko epea (zerrendatu 2.4 apartatuan deskribatutako gastuak/jarduerak eta X batez markatu bakoitzaren gauzatze-hilabeteak).

2025												
Jarduera	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
1. jarduera												

2025												
Jarduera	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
2. jarduera												
3. jarduera												
2026												
Jarduera	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
1. jarduera												
2. jarduera												
3. jarduera												

2.6.– Gainera, 3.C) lerrorako, hauek ere adierazi beharko dira:

- Ustiategi-kodea.
- Ustiategiko animalia-kopurua.
- Lepokoak erabiliko dituzten animalien kopurua.
- Erdi-uruntasuna adierazteko gailuak erabiliko dituzten animalien kopurua.
- Kalitate-bereizgarria duen. Adierazi zein.

2.7.– Laguntza emanez gero, enpresari zenbateko hobekuntza ekarriko dion produktibitatean eta lehiakortasunean (deskribatu jarduera-proiektua egiteak zer aurrerapen ekarriko dion enpresaren jarduera ekonomikoari), gehienez 200 hitz.

2.8.– Hobekuntzak eta ingurumen jasangarritasuna sustatzea, (azaldu, labur, enpresaren jarduera ekonomikoko proiektuak zer beste ingurumen-eragin izango duen), gehienez 200 hitz.

Erantzukizunpeko adierazpena:

– Bete egiten ditut programako laguntzak emateko oinarri arautzaileetan eskatzen diren bete-kizunak.

– Ez naiz krisian den enpresa, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

– Proiektuak bete egiten du EAEn ingurumen-gaietan aplikatu beharreko berariazko araudia (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena), –dagokionean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo zaie, aurrez, inbertsio-proiektuei–, baita higiene-araudia eta inbertsio bakoitzari aplikatu beharreko Europar Batasuneko arauak ere.

2025eko irailaren 17a, asteazkena

– Eskatu dut / Ez dut eskatu eta jaso dut / ez dut jaso beste administrazio batek edo ente publiko zein pribaturen batek helburu bererako ematen duen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikoren bat.

Entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa

– Eskatu dut / Ez dut eskatu eta jaso dut / ez dut jaso, hiru urteko edozein alditan, beste administrazio batek edo ente publiko zein pribaturen batek emandako de minimis laguntzaren bat, de minimis erregelamenduren bati lotuta (Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa).

	Entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa
2023			
2024			
2025			
2026			

– 3.C) lerroari dagokionez, Europako Batzordearen 2022ko abenduaren 14ko 2022/2472 (EB) Erregelamenduen 8. artikuluan jasotako metatze-arauak errespetatu beharko dira, jasotako beste zenbateko batzuk adierazita.

	Entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa
2023			
2024			
2025			
2026			

- Egunean dut dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
- Ez dut ebazpen irmo baten bidez zehapenik jaso, dirulaguntzak jasotzea galarazten didanik, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. (Zehazki, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiararen arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak).
- Ez dut eskatu hartzekodunen konkurtso boluntariorik, ez naute kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez nago hartzekodunen konkurtsoan deklaratura –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, ez nago epailearen esku-hartzearen mende eta ez nago desgaitua Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, hartzekodunen konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoelarik.
- Ez dut zehapenik jaso, ebazpen irmo bidez, dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko, edo honako delitu hauetakoren bat egin izana leporatuta: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Ez dut eragin administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu nautela.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzailea edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaria izanik, ez nago Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, eta ez daukat Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.
- Ez dut egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako ezein herrialde edo lurraldetan.
- Ez dut zehapenik jaso, administrazio-bideko ebazpen irmo bidez, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik, edo, zehapena jasota ere, neurri zuzentzaileak bete ditut eta isuna ordaindu dut.
- Elkartea izanik, ez nago nahasita Elkartzeko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan. Eta inskribatzeko administrazio-prozedura ez dago etenda ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan.
- Ez nago berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.
- Bete dut, hala egokitu zaidanean, desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erre-serba-kuota, eta ez dut egiaztatu hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri diren.

– Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezakeen entitatea izanik, nire erantzukizunpean aitortzen dut bete egiten ditudala Merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluan adierazitakoarekin bat, konpromisoa hartzen dut enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, aipatutako legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.h) artikuluan adierazitakoarekin bat etorri, konpromisoa hartzen dut gehiegizko finantzaketarik ez jasotzeko.

Konpromisoa hartzen dut aurretik adierazi dudana betetzeko, adierazpen hau aurkezten dudantik hasi eta deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza guztia justifikatu arteko denbora-tarte osoan.

Konpromisoa hartzen dut emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte adierazitako inguruabarran gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du NAN, IFZ eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela, bat etorri Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan zehaztutakoarekin (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa). Hala ere, kudeaketa-organoak inguruabar horiek zuzenean egiaztatzearen aurka agertzen den pertsona edo entitate interesdunak bere kabuz aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

o Uko egiten diot informazioa ofizioz jasotzeari, eta nik neuk aurkeztuko ditut ziurtagiriak eskabidearekin batera.

Erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteak –39/2015 Legearen 69. artikulua aplikatuta esan nahi du betebeharrak betetzen dituela, bada hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak betetzeko aitortzen edo baliatze horri dagokion denbora guztian; bada kiela funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela, eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.

III. ERANSKINA

2025EKO DIGITALIZAZIOA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN EJSN-EN ZERRENDA

- 01.– Nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza.
- 0210.– Basogintza eta basoko beste jarduera batzuk.
- 0220.– Zuraren ustiapena.
- 0230.– Basoko produktuen bilketa, zura salbu.
- 0240.– Basogintza babesteko zerbitzuak.
- 03.– Arrantza eta akuikultura.
- 10.– Elikagaien industria.
- 11.– Edarien fabrikazioa.
- 1610.– Zura zerratu eta arrabotatzea; zuraren eraldaketa eta akabera.
- 1621.– Zurezko txapen eta oholen fabrikazioa.
- 1624.– Zurezko ontzien eta enbalajeen fabrikazioa.
- 1623.– Eraikuntzarako zurezko beste egitura batzuen eta zurgintzako eta ebanisteriako piezen fabrikazioa, eraikuntza industrializaturakoak salbu.
- 1629.– Eraikuntza industrializaturako zurezko beste egitura batzuen eta zurgintzako eta ebanisteriako piezen fabrikazioa.
- 461.– Nekazaritzako lehengaien, bizirik dauden animalien, ehungintzako lehengaien eta erdi landutako produktuen merkataritzako bitartekariak.
- 4621.– Zerealen, tabako-zotzen, hazien eta animalientzako elikagaien handizkako merkataritza.
- 4631.– Fruta eta barazkien handizkako merkataritza.
- 4632.– Haragiaren eta haragikien handizkako merkataritza.
- 4633.– Esnekien, arrautzen, olioaren eta jan daitezkeen gantzen handizkako merkataritza.
- 4634.– Edarien handizkako merkataritza.
- 4636.– Azukrearen, txokolatearen eta gozoren handizkako merkataritza.
- 4637.– Kafearen, tearen, kakaoaren eta espezien handizkako merkataritza.
- 4638.– Arrainen, itsaskien eta beste elikagai batzuen handizkako merkataritza.
- 4639.– Elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza, espezializatu gabeko establezimenduetan.
- 4721.– Fruta eta barazkien txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.
- 4722.– Haragiaren eta haragikien txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.
- 4723.– Arrainen eta itsaskien txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.

4724.– Ogiaren eta okindegiko eta gozotegiko produktuen txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.

4725.– Edarien txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.

4729.– Elikagaien bestelako txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan.

4781.– Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza, salmenta-postuetan eta azoka txikietan.

4711.– Txikizkako merkataritza, espezializatu gabeko establezimenduetan, batez ere elikagaiak, edariak eta tabakoa saltzeko.

4719.– Txikizkako merkataritza, espezializatu gabeko establezimenduetan.

Jarraian zerrendatuta dauden EJSNak ontzat eman ahal izango dira Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Industrien Erregistroan inskribatutako establezimenduren bat duten entitateen kasuan:

2512.– Metal-arotzeriaren fabrikazioa.

3519.– Beste mota batzuetako energia elektrikoaren ekoizpena.

3530.– Lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.

4673.– Zuraren, eraikuntzarako materialen eta aparatu sanitarioen handizkako merkataritza.

4677.– Txatarraren eta hondakinezko produktuen handizkako merkataritza.

4941.– Salgaiak errepidez garraiatzea.

6820.– Ondasun higiezinak norberaren kontura alokatzea.

4920.– Salgaiak trenbidez garraiatzea.

4941.– Salgaiak errepidez garraiatzea.

5020.– Salgaiak itsasoz garraiatzea.

5121.– Salgaiak airez garraiatzea.

5210.– Gordailua eta biltegiatzea.

5510.– Hotelak eta antzeko ostatuak.

5590.– Beste ostatu batzuk.

5610.– Jatetxeak eta janari-postuak.

5621.– Ekitaldietarako janari prestatuen hornikuntza.

5629.– Beste janari-zerbitzu batzuk.

5630.– Edarien establezimenduak.